

## ZISNEAREN HEGALDIA

Maria Ruiz

*Beasain*

Nire barruan zerbait puskatuta balego bezala sentitzen naiz. Neure bihotza, pieza baten falta duen puzzlea da. Beti dauka zati huts bat. Berriz ere ezingo dudala dantza egin pentsatzen dudanean, ezin dut larritasun hori kontrolatu eta malkoek masailetatik behera irrist egiten dute.

Gaur, beti bezala, begiak ireki ditut eta oraingoan lainoetako *malkoen* soinuak esnatu nau. Leihoan, euri-tantek egiten duten dantza ikus dezaket eta ez dut eguna hasteko gogorik. Ohean gelditu nahi dut eta egunero, pixkanaka-pixkanaka, itzaltzen noa.

Baina neure barruan zerbait dago bizirik oraindik ere... Eskola-ordu haietan entzuten nuen musika gozoak, nire barruko guztia mugitzen du, haize bortitzak zuhaitzetako hostoak mugitzen dituen bezalaxe. Oraindik, nabarmendu dezaket toki hartako usaina; toki hartako arima. Eta lur hartako egurraren kris-kras soinua ez entzuteak, beldurtu egiten nau. Neure oinek sentitzen zuten tentsioa, indarra eta neure buruari eskatzen nion diziplina hura, galtzeko beldur naiz.

Ospitale honetan igarotzen ditudan egun, ordu eta segundo guztietan etortzen zait irudi hura burura: anbulantziaren oihu itoa, autoaren leihoe-tako milaka kristal-puska txikirekin nahastuta. Dardarka hasi eta begiak kliskatzerakoan, neure burua lurrean botata ikusi nuen, gertatzen zenaz ohartu gabe. Une hartan pentsatu nuen, huraxe izango zela neure bihotzeko azken hatsa. Heriotzaren *usaina* besterik ez nuen bertan nabaritzen. Istant horretan, nire bizitza osoa, film labur eta arrunt baten gisa, nire burutik igaro zen. Zer izango ote zen nitaz? Ez nuen galdera horren erantzuna pentsatzeko denborarik izan.

Esnatzerakoan, neure gorputza hainbat eta hainbat kablez inguratuta ikusi nuen. Horiek guztiak, datuak eta grafikoak erakusten zituzten zenbait makinatara konektatuta zeuden. Ezin nuen gihar bakar bat bera ere mugitu, nire gainean objektu astun bat balego bezala nengoen, ohetik altxatzea eragozten zidana.

Egoera horren aurrean, burura etorri zitzaidan gauza bakarra oihu egitea izan zen. Eta hori bera egin nuen. Garrasi egin nuen, garrasi egin nuen nire kemen guztiaz. Berehala erizain bat sartu zen korrika gelako atetik, neure familia guztia atzetik zetorrela. Aita ikusi nuen zenbait malko isuriz, harrigarria eta bitxia izan zena, berak ez duelako negar egiten, ez bere sentimenduak erakusten sarritan, eta are gutxiago jendaurrean. Ahizpa txikia oihuka hasi zen: «Esnatu da, aita, Sara esnatu egin da!». Ez nuen ezer ulertu, uste nuen ahizpak esandakoa guztiz lekuz

kanpo zegoela. Nolatan esan zuen gauza hura? Segituan konprenitu nuen dena, ordea. Arraroea egin zitzaidan ahizpa txikitzat nuena *ez hain txikia* ikustea. Baina okerrena ez zen hori izan, ama inondik ere ez ikustea baizik. Non ote zegoen?

Beranduago esan zidaten inoiz entzun nahiko ez nuena: ama, istripua gertatu zen egunean bertan hil zen. Ez zen ospitalera ere iritsi, bidean zihola utzi gintuen. Istripuan jasan zituen zauriak hain ziren larriak, non ezin izan zuten beregatik ezer egin. Zergatik bera eta ez ni???

Egun hartako oroitzapenak etortzen zaizkit tar-teka. Balleteko dantza-eskola famatu batean sartze-ko probak egin behar nintuen. Amak eskola atarian jaso ninduen bere Renault zaharrarekin. Zenbat aldiz esan ote zion aitak autoz aldatzeko?!

Zerua laino ilunez estalita zegoen, gero eta ilunago, eta iragarrita zegoen bezala, hasieran lau ttantto zirenek egundoko euritea ekarri zuten. Euriak gero eta indartsuago jotzen zuen eta alferrikakoa zen kristal-garbigailuen lana. Hain zen ozena euri-tantoez kristaletan jotzean egiten zuten soinua, non ezin nuen irratian entzun, Lewis Capaldiren *Someone You Loved* nire abesti gogokoen. Bihurgune baten ondoren, kontrako bidetik, bi argi disdiratsu gureganantz zetozen zuzenean, gero eta azkarrago, gero eta gertuago. Argi haiek gure begiak itsutu zituzten eta, nahiz eta amak freno gogor zapaldu, autoak ez zion aginduari kasu egin... Hura bihurtu zen nire azken oroitzapena. Argia, amaren oihua eta azkenean, iluntasuna.

Momentu honetan, ez dago irribarre bat neure aurpegian marraztuko duen ezer. Ez aitonak kon-tatzen zizkidan txisteeek, ez nire lagun minarekin egiten nituen barreek. Bakarrik nagoela sentitzen dut eta hemen etzanda egoteak ez dit laguntzen. Ezin naiz ni bakarrik ibili. Aulki gurpildunaren beharra dut eta orduak pasatzen ditut aulki mada-rikatu honetatik noiz eta nola alde egingo dudan pentsatzen.

Nire oinek zorua ukitzen zuten bakoitzean sen-titzen nuen hotzikara hura behar dut orain ere. Nire arazo guztiak desagertzen direla sentitu nahi dut eta dantza egiten dudan bakoitzean, hegan egi-ten nagoela imaginatu nahi dut. Ezin dut ez egun bat, ezta segundu bat ere, pasatu gorputzarekin mugimenduak egin gabe, eta pauso, mugimendu eta sentimendu bakoitza dantzan erretratatu gabe. Musika nuen guztiaren giltza. Horrela, konturatu gabe, emozioen bide bat, emozioen kate bat, emo-zioez beteriko dantza bat egiten nuen. Baina, beste alde batetik, amaren maitasuna behar dut, amak ematen zidan indarra.

Azken bi urteak koma sakon eta beldurgarrian egonez eman ditut, ohean etzanda. Inoiz ezingo dut nire aurreko bizitza berreskuratu, lagunak, ikasketak, balleta... Ni neu aldatu naiz. Ezagutezina naiz neure buruarentzat ere. Neure bizi osoa ahul-ki madarikatu honetan igaro beharko dut. Arrotz sentitzen naiz neure gorputzean. Infernu hau bere amaierara ailegatzea dut nahi handiena. Maite nuen pertsona bakarra ere ez dago, nori eskainiko

diot, bada, orain, emateko dudan maitasun guztia? Bihotza hamar mila zatitan puskaturik daukat. Pertsona orok esaten du nork bere bihotzari jarraitu behar diola, baina, bihotzeko zein zatiri jarraitu behar diot nik: amaren maitasunari edo balleta egiteko grinari?

Jada nekatuta nago. Askok pentsatuko dute, hartu dudan erabakia pertsona koldar batena dela, baina neure ustez oso ausarta izan behar da. Gaur izango da munduan egongo naizen azken eguna eta balleteko zapatilak jantzi ditut azken emanaldi honetarako. Aurikularretan, Chaikovskiren *Zisneen lakua* denak emanda daukat. Ezin izan dut obra hobegorik aukeratu. Zisne bihurtuko naiz balkoi honetatik zerurantz hegan egiteko.

Berehala naiz zurekin, ama... Banoa.